



OÑATIKO UDALA

Idazkaritza@onati.eus  
Telefonoa 943 78 04 11  
Fax: 943 78 30 69  
20560 OÑATI

## AKORDIO JAKINARAZPENA

### NOTIFICACIÓN DE ACUERDO

IRTEERA-ERREGISTROA

Zkia. ....

Data .....

Udal Osoko Bilkurak 2021eko apirilaren 29an egindako bileran, besteak beste, ondorengo erabakia hartu zuen:

#### **Emakumeen Memoria Historikoa berreskuratzeko genero ikuspegidun ikerketarako emango den Selma Huxley Barkham ikerketa bekaren oinarri arautzaileak eta 2021eko deialdia.**

4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta gizonen berdintasunerakoak hainbat zehaztapen egiten ditu. Besteak beste, 7. artikuluan tokiko erakundeen eskumenak ezartzen ditu eta besteren artean ondorengo zehatzen du: e) Toki eremuan, emakume eta gizonen egoerari buruzko azterlanak eta ikerketak egitea.

2012ko abenduaren 20ko Osoko Bilkuran onartu zen Oñatiko Emakume eta gizonen arteko Berdintasunerako I. Plana zeinak besteren artean ondorengo ekintzak aurreikusten dituen:

- J. 1.1.6. Herrian garrantzitsuak izan diren emakumeak omendu, hauek egindako lana publikoki eskertuz.
- J.1.1.9. Udaleko emakumeen historia berreskuratzeko ekimenak antolatu (ikerketa bekak, ahozko artxibategia osatu...).

Oihane Ruiz de Apodaka Bermudezen (Berdintasun teknikaria) 2021eko apirilaren 13an egindako Berdintasun Batzordearen sinatutako aktak dio:

#### “4. Selma Huxley Barkham bekaren III. Deialdia:

Hurrengo deialdirako planteatzen diren aldaketa nagusiak ondorengoak dira:

- Esleipen prozeduraren irizpideen puntuazioaren banaketa zehazten da.
- Aurkeztu beharreko dokumentazioan egindako ikasketen eta ikerketen orduak islatzea eskatzen da.
- Esleipen prozesuan berdinketa gertatuz gero honako irizpidea gehitu da: Berdinketa hausteko irizpide gisa honakoa ezarriko da: “berdinketa gertatuz gero, aurreko deialdietan bekaren onuradun izan ez den proposamenak izango du lehentasuna”.

Berritasunak azaldu ostean, Selma Huxley Barkham ikerketa bekaren III. Edizioko deialdirako ikerketa-beka arautzen duten deialdiaren oinarriak aho batez onartu dira.

III. edizioko deialdiaren oinarriak aho batez onartu eta gero, III. ediziorako deialdia egitea aho batez onartu da”.

Jasota dago kreditu egokia eta nahikoa dagoela.

Azaldutakoagatik, Berdintasun batzordeak osoko bilkurari honako hau proposatzen dio:

**LEHENENGOA.**- Jarraian ageri den ikerketa bekarako diru-laguntzarako deialdia eta eranskinean jasotzen diren oinarriak onartzea:

1. Ikerketa bekarako deialdia.
2. Eranskina: deialdiaren oinarriak.

**BIGARRENA.-** Aipatutako diru laguntzen 2021eko deialdia onartzea.

1. Finantziazioa.

1.1 2021eko aurrekontu ekitaldiari dagokion ikerketa beka deialdirako, guztira hamazazpi mila eta laurehun euroko (17.400€) gastua baimentzea. Aurrekontuko 1 0503.227.231.50.95 2021 diru atalaren kargura joango da gastua. Halaber, aurrekontuen arloko eskumena duen organoak behar diren kredituak ezarriko ditu 2021 eta 2022 ekitaldietako aurrekontuetan.

2. Eskaerak aurkezteko epea.

30 egun balioduneko epean, deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunetik kontatzen hastea, behin diru-laguntzen datu-base nazionalean argitaratuta.

**HIRUGARRENA.-** Erabaki honen bidez onartuko diren oinarri arautzaileek eragina izango dutela Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen diren egunetik aurrera.

**LAUGARRENA.-** Erabaki hau behin betikoa izango da eta amaiera emango dio administrazio bideari.

Interesatuak erabaki horren aurka zuzenean Administrazioarekiko Auzi Errekurtsioa aurkeztu izango dezaketela Administrazioarekiko Auzietako Donostiako Epaitegietan, argitaratu eta biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, partikularrek aukera izango dutela horren aurretik Berraztertze Hautazko Errekurtsioa aurkezteko Osoko bilkurari, argitaratu eta biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzearen berriazko ebazpena eman edo ustezko ezespina gertatu arte. Dena dela, egoki irizitako beste edozein errekurtsio aurkez daiteke.

**BOSTGARRENA.-** Erabaki hau kontuhartzaileari eta berdintasun teknikariari jakinaraztea.

---

Gaia aztertuta eta Berdintasun batzordearen irizpena kontuan hartuz, udalbatza osatzen duten hamazazpi zinegotzietatik hamasei bertaratuta, alkateak bozketa agindu du. Proposamena zinegotzietatik aho batez onartu dute.

Oñatin, 2021eko maiatzaren 11n

Idazkariak

## INPUGNAKETA-BIDEAK

Honen berri ematen dizu(e)gu dagozkion ondorioetarako. Bide batez, administrazio-bidea amaitzen duen egintza horren aurka administrazioarekiko

**AUZI-ERREKURTSOA** aurkez dezakezu Administrazioarekiko Auzitarako Epaitegian, Donostian, **BI HILABETEKO EPEAN**, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita, administrazioarekiko auziak arautzen dituen uztailaren 13ko 29/1.998 Legearen 8. eta 46. artikuluan ezarritakoaren arabera, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 114. c) artikuluekin bat etorritz.

Nolanahi ere, nahi izanez gero, aurreko idazatian adierazitako administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik, **BERRAZTERTZEKO ERREKURTSOA** aurkez diezaiokezu ebazpena eman zuen organoari **HILABETEKO EPEAN** jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita.

Hori guztia, aurretik adierazitako urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikulua eta kidekoetan ezarritakoarekin bat etorritz, eta zure eskubideak babesteko egoki irizten dituzun egintza edo errekurtsoak aurkezteari kalterik egin gabe.

## MEDIOS DE IMPUGNACION

Lo que se le/s notifica a Vd/s. a los efectos procedentes, significándole/s que, contra el citado acto expreso, que es definitivo en vía administrativa, podrá/n Vd/s. interponer en el plazo **de DOS MESES**, contados desde el día siguiente al de la recepción de la presente notificación, **RECURSO CONTENCIOSO ADMINISTRATIVO** ante el Juzgado de lo Contencioso Administrativo con sede en Donostia-San Sebastián, a tenor de lo establecido en los art. 8 y 46 de la Ley 29/1.998 de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa, en concordancia con el art. 114.c) de la Ley 39/2015, de 1 de octubre del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

No obstante, con carácter potestativo, y previo al Recurso Contencioso-Administrativo señalado en el párrafo anterior, contra la resolución expresa que se le notifica, podrá/n Vd/s. interponer **RECURSO DE REPOSICIÓN**, ante el mismo órgano que lo dictó, en el plazo de **UN MES** que se contará desde el día siguiente al de la fecha de la recepción de la presente notificación.

Todo ello, conforme a lo establecido en los artículos 123, 124 y concordantes de la Ley 39/2015 de 1 de octubre, anteriormente señalada, y sin perjuicio de cualquier otra acción o recurso que estime/n oportuno interponer para la mejor defensa de sus derechos.